



Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea
Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y
Acreditación del Sistema Universitario Vasco

EUSKAL UNIBERTSITATE-SISTEMAREN GRADU-TITULUAK EBALUATZEKO MEMORIA

09ko azaroa- 10eko ekaina

AURKIBIDEA

	Or.
1. TESTUINGURUA	1
2. EBALUAZIO-PROZESUA	1
2.1. PROTOKOLOA EGIN ETA ARGITARATZEA.....	2
2.2. EBALUAZIO-BATZORDEKO KIDEAK HAUTATU, IZENDATU ETA HORI GUZTIA ARGITARATZEA	2
2.3. UNIBERTSITATEEK UNIKUALI MEMORIAK AURKEZTEA	6
2.4. MEMORIAK EBALUATU ETA HORREN GAINEKO BEHIN-BEHINGO TXOSTENA EGITEA	7
2.5. UNIBERTSITATEEK BEHIN-BEHINGO TXOSTENARI ALEGAZIOAK AURKEZTEA	7
2.6. BEHIN BETIKO TXOSTENA EGIN ETA BERORI UNIBERTSITATEEI ETA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILARI BIDALTZEA	7
3. ETORKIZUNeko AUKERAK.....	8
I. ERANSKINA: ARAUTEGIA	9

1. TESTUINGURUA


Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) Europaren eraketaren funtsezko proiektua dugu, eta Espainiako unibertsitateek esparru horren sorreran parte hartzen dutenez gero, gradu-titulu berriak proiektu horren printzipioetara egokitu behar dira.

Zeregin horretan honakoek hartzen dute parte: Espainiako gobernuak, legedia bultzatzeko eta tituluak Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistro berrian erregistratzeko lanetan; Eusko Jaurlaritzak, tituluak baimentzeko arduradun; Unibertsitateen Kontseiluak eta ANECAk, ikasketen egiaztapen akademikoaren arduradun, eta UNIQUALEk, Eusko Jaurlaritzak ematen duen baimenaren aurreko txostena egiteko arduradun. Hori guztia, 4/2007 Legearen 35. artikuluan, 3/2004 Legearen 48. eta 80.3.c). artikuluetan, 1393/2007 Errege Dekretuaren 24., 25. eta 26. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 11/2009 Dekretuaren xedatutakoaren arabera.

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak 48. artikuluan xedatzen duenez, derrigorrezkoa da Uniqualen alde aurretiko txostena izatea goi-mailako irakaskuntzako titulu ofizialak lortzeko behar diren ikasketa-plan berriak onartze aldera. Ondoren, 11/2009 Dekretuak, Gradu-, Master- eta Doktoretza-tituluak lortzeko unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzeari eta ezabatzeari buruzkoak, txosten hori prestatzeko prozedura eta irizpideak ezarri ditu.

2. EBALUAZIO-PROZESUA

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen ikasketa-planei buruz UNIQUALEk egin beharreko aurretiko txostena lotzeko prozedura 11/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera da, eta etapa hauek bete behar ditu:



2.1. PROTOKOLOA EGIN ETA ARGITARATZEA.

Lehen aipatu lege-manua, Euskal Unibertsitatearen Sistemaren 3/2004 Legearen 80.3. c) artikuluan eta UNIQUALen Estatutuen (ekainaren 27ko 138/2006 Dekretua) 5.b) eta 9.d) ezarritakoa kontuan hartuta, Euskal Unibertsitatearen Sistemaren Gradu-titulazioen Ikasketan planen aurretiko txostena emateko Protokoloa (2009ko abenduaren 4ko EHAA) egin eta argitaratu zuen agentziak.

2.2. EBALUAZIO-BATZORDEKO KIDEAK HAUTATU, IZENDATU ETA HORI GUZTIA ARGITARATZEA

UNIQUALen estatutuek (ekainaren 27ko 138/2006 Dekretua) ezartzen dutenez, UNIQUALek, bere eginkizunak betetze aldera, komunitate zientifikoaren aholkua eskatuko du, Ebaluazio Batzordeen bidez. Batzorde horiek jakintza-arloen edo espezialitateen arabera banatuta sortuko dira, edo garatu beharreko ebaluazio-prozesuaren berezitasunen arabera. Ikasketan planen aurretiko txostenak egiteko Ebaluazio Batzordea ebaluatu beharreko jakintza-arloan sona handia duten adituek osatzen dute.

UNIQUALen estatutuek ezartzen dute Ebaluazio Batzordeek zazpi kide izango dituztela; UNIQUALeko zuzendariak izendatuko ditu, Adituen Batzordeak proposatuta, nazioarteko komunitate zientifikoko irakasle doktoreen artean. Dena den, izendatzen diren hiru adituk, gutxienez, euskal sistema unibertsitatekoak izan behar dute.

Orobat, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioak betetze aldera, saiatu zen sexu biek ebaluazio-batzorde bakoitzean gutxienez ordezkarien % 40 izan zezaten.

Egin beharreko ebaluazio-prozesuaren ezaugarrien eta Uniqualen Administrazio Batzordearen Akordioak onartutako Jakintza Arloen Katalogoaren arabera, eta betiere Agentziaren estatutuetan xedatutakoaren arabera, zientzia-arlo handiei lotutako ebaluazio-batzordeak eratu ziren, alegia:

- 1) Zientziak.
- 2) Osasun Zientziak.
- 3) Arkitektura eta Ingeniaritza.
- 4) Gizarte- eta Lege-zientziak.
- 5) Arteak eta Giza Zientziak.

Ebaluatu behar ziren tituluen kopuruaren eta batzordeen gaien aniztasunaren arabera, batzordeek aholkulari akademikoak izan zituzten. UNIQUALeko zuzendariak izendatu zituen, batzordeek beraiek eskatuta, batzordeko kide titularren baldintza berberak zituzten irakasle eta ikerlarien artean. Batzordeek beharrezkotzat jotzen zutenean, kasuan kasuko tituluaren

arloko profesionalen artean aukeratutako aholkularien laguntza ere izan zuten. Aholkulariok batez ere tituluaren justifikazioarekin lotutakoak tituluaren gaitasunak baloratu zituzten, baita irakaspenen edukia, irakasleen egokitasuna eta kalitatea bermatzeko barneko sistema ere. Hona ebaluazio-batzordeetako kideen zerrenda zehatza (2010eko martxoaren 1eko EHAA):

ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Luis Vega González	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Azterketa Matematikoa
Julio Ernesto Abalde	Irakasle titularra	Coruñaiko Unibertsitatea	Microbiologia
M ^a del Carmen Arévalo	Irakasle titularra	La Lagunako Unibertsitatea	Kimika eta Fisika
M ^a Luisa Calvo	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Konplutensea	Optika
Luis Ángel Fernández	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Kimika Analitikoa
Manuel Prieto	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Kristalografia eta Mineralogia
Ana Rallo	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Zoologia

OSASUN-ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
M ^a Dolores Boyano	Irakasle titularra	EHU	Medikuntza
M ^a Pilar Gómez Serranillos	Irakasle titularra	Madriko Unibertsitate Konplutensea	Farmazia, Farmakologia
Tomás Hermenegildo González	Irakasle titularra	La Lagunako Unibertsitatea	Giza Anatomia eta Enbriologia
Susana Gorbeña	Irakasle titularra	Deustuko Unibertsitatea	Pertsonalitatea, Ebaluazioa eta Tratamendu Psikologikoa
Enrique Molinero	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Medikuntza
Gerardo Pisabarro de Lucas	Unibertsitateko katedraduna	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Microbiologia
Ana González Pinto	Irakasle titularra	EHU	Psikiatria

ARKITEKTURA ETA INGENIARITZAREN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Rafael Avilés	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeniaritza Mekanikoa
Luis Basañez	Unibertsitateko katedraduna	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	Sistemen Ingeniaritza eta Automatika
Jaime Domínguez	Unibertsitateko katedraduna	Sevillako Unibertsitatea	Ingeniaritza Mekanikoa
Víctor Echevarría	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Sistemen Ingeniaritza eta Automatika
Emilio Eguía	Unibertsitateko katedraduna	Kantabriako Unibertsitatea	Itsasontzigintza
Arturo Romero	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Konplutensea	Ingeniaritza Kimikoa
José Javier Dolado	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Hizkuntza eta Sistema Informatikoak
Aholkularia	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Antonio Aguado de Cea	Unibertsitateko katedraduna	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	Eraikuntzako Ingeniaritza
Ricardo Castroviejo	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Politeknikoa	Mehatze Prospekzio eta Ikerkuntza
Rogelio de la Vega	Irakasle titularra	Madriko Unibertsitate Politeknikoa	Kartografia eta Geodesia Ingeniaritza eta Fotogrametria
Carlos Ángel Pérez	Irakasle titularra	Kantabriako Unibertsitatea	Itsasketa Zientzia eta Teknikak
Joaquín Sabaté	Unibertsitateko katedraduna	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	Hirigintza eta Lurralde-antolakuntza
María Ribera Sancho	Irakasle titularra	Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa	Hizkuntza eta Sistema Informatikoak


GIZARTE ETA LEGE ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
M ^a Concepción Medrano	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia
Javier Díaz Noci	Irakasle titularra	Universitat Pompeu Fabra	Kazetaritza
Teresa González de la Fe	Unibertsitateko katedraduna	La Lagunako Unibertsitatea	Soziologia
Aurelia Modrego	Irakasle titularra	Madrileko Carlos III.a Unibertsitatea	Ekonomia Aplikatua
Patricio Pérez	Irakasle titularra	Kantabriako Unibertsitatea	Ekonomia Aplikatua
José Luis San Fabián	Irakasle titularra	Oviedoko Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola-antolakuntza
Jon Arrieta	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Zuzenbidearen eta Erakundeen Historia
Aholkularia	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Javier Coterón	Irakasle titularra	Madrileko Unibertsitate Politeknikoa	Gorputz eta Kirol Hezkuntza
Carlos Manuel	Irakasle titularra	Madrileko Carlos III Unibertsitatea	Eskualde Análisi Geografikoa
Rafael Mendia	Profesionala	----	---
José Manuel Montes	Irakasle titularra	Oviedoko Unibertsitatea	Enpresen Antolakuntza
Joan Josep Pujadas	Unibertsitateko katedraduna	Universitat Rovira i Virgili	Gizarte Antropologia
Javier Sampedro	Irakasle titularra	Madrileko Unibertsitate Politeknikoa	Gorputz eta Kirol Hezkuntza
Camilo José Vázquez	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Enpresen Antolakuntza

ARTE ETA GIZA ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Nicanor Ursua	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Filosofia
Andoni Barreña	Irakasle titularra	Salamancako Unibertsitatea	Euskal Filologia
M ^a Teresa Escohotado	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Margolaritza
Carmen Fernández	Unibertsitateko katedraduna	Madriko Unibertsitate Autonomoa	Hizkuntzalaritza Orokorra
María Lozano	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeles Filologia
Manuel Redero	Unibertsitateko katedraduna	Salamancako Unibertsitatea	Historia Garaikidea
Dulce Ocón	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Artearen Historia

2.3. UNIBERTSITATEEK UNIQUALI MEMORIAK AURKEZTEA.

2009ko azaroaren 10ean, Euskal Herriko Unibertsitatearen 89 memoria jaso ziren, ikasketa-planei dagozkionak. Prozesuan zehar, UNIQUALek titulazio bakoitzeko memoria bakarra eskatu zuen. EHUK 4 memoria atzera bota zituen eta geroago horietako 3 aurkeztu zituen berriz ere; horrela, guztira, ebaluatzeko 67 memoria geratu ziren.

EHU-K AURKEZTUTAKO MEMORIAK



2.4. MEMORIAK EBALUATU ETA HORREN GAINEN BEHIN-BEHINGO TXOSTENA EGITEA

Martxoan eta apirilean, 2009ko azaroan aurkeztutako memorien behin-behingo txostenak bidali zitzaizkion unibertsitateari. Ekainean, EHUK atzera bota ondoren berriz aurkeztu zituen memorien gaineko behin-behingo txostenak bidali ziren.

Aurkeztutako 67 memorietatik, 63k (% 94) behin-behingo aldeko txosten baldintzatua jaso zuten, alegia, azken txostena aldekoa izan zedin, zer baldintza bete behar ziren azaltzen zuena, horretarako, egin beharreko aldaketak eta zenbait gomendio jasota. Lau memorien gainean, berriz, aurkako txostena eman zen, zeinean aldeko txostena lortzeko egin beharreko funtsezko aldaketak azaltzen ziren.

Behin-behingo txostenen emaitzak, jakintza-arloaren arabera

JAKINTZA-ARLOA	AURKEZTUAK	ALDEKO TXOSTENAK, BALDINTZATUAK	AURKAKOAK
Arteak eta Giza Zientziak	10	10 (% 100)	0
Zientziak	9	9 (% 100)	0
Osasun-zientziak	6	6 (% 100)	0
Gizarte- eta Lege-zientziak	23	23 (% 100)	0
Ingeniaritza eta Arkitektura	19	15 (% 79)	4
GUZTIRA	67	63 (% 94)	4

2.5. UNIBERTSITATEEK BEHIN-BEHINGO TXOSTENARI ALEGAZIOAK AURKEZTEA

Apirila eta ekaina bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateak behin-behingo txostenei eginiko alegazioak aurkeztu zituen. Prozesua amaitzeko ezarritako epea (6 hilabete) luzatu egin zen, Euskal Herriko Unibertsitateak, txostenen edukia ikusita, epe malguagoak eskatu ondoren; izan ere, zentroen partaidetza behar zen, eta, gainera, Aste Santuko oporraldia tartean zela-eta, lanegun gutxiago zegoen.

2.6. BEHIN BETIKO TXOSTENA EGIN ETA BERORI UNIBERTSITATEEI ETA HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILARI BIDALTZEA.

Maiatza eta ekaina bitartean, UNIQUALEk behin betiko txostenak bidali zizkion Unibertsitateari eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Guztira, 67 memoria aurkeztu ziren. Horietatik, 65ek (% 95) aldeko txostena lortu zuten. Nolanahi ere, txostenetan zenbat ohar jaso ziren, zein kontutan jarriko den arreta gehien azaltzeko, bai Tituluaren geroko

berriskupenei dagokienez, baita 1393/2007 Errege/Dekretuaren 27. artikulua (861/2010 Errege Dekretuaren 27. artikulua aldatuta) 4. idatz-zatian aurreikusitakoaren segimendu-prozedurari dagokionez ere. Aurkeztutako bi memoriei buruz, berriz, aurkako txostena egin zen; izan ere, unibertsitateak aurkeztutako alegazioak ez zuten behar bezala zuzendu hasierako proposamenean aurkeztutako hutsuneak.

Azken txostenen emaitzak, jakintza-arloen arabera.

JAKINTZA-ARLOA	AURKEZTUTAKOAK	ALDEKOAK, OHARRAK JASOTA	KONTRAKOAK
Arteak eta Giza Zientziak	10	10 (% 100)	0
Zientziak	9	9 (% 100)	0
Osasun Zientziak	6	6 (% 100)	0
Gizarte- eta Legezientziak	23	23 (% 100)	0
Ingeniaritza eta Arkitektura	19	17 (% 89)	2
GUZTIRA	67	65 (% 97)	2

3. ETORKIZUNEN AUKERAK

861/2010 Errege Dekretuaren 27. artikulua eta 11/2009 Dekretuaren 17. artikulua 4. idatz-zatiaren arabera, UNIQUALEk Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztien gradu-, master- eta doktorego-ikasketa ofizial erregistratuen segimendua egingo du, akreditazioa berritzeko ebaluaziopean jarri behar diren unera arte.

Hona UNIQUALEk unibertsitatearen titulu ofizialen gainean egingo duen segimenduaren helburuak:

- Ikaskuntzak ezarritako tituluaren ikasketa-planaren arabera gauzatzen direla egiaztatzea, Unibertsitateen, Zentroen eta Tituluaren Erregistroan jasota dagoen bezala, eta Unibertsitate Kontseiluak onartutako eta baimendutako aldatetekin batera.
- Unibertsitate-sistemaren eragile interesdunek informazio egoki eta garrantzitsua eskura izango dutela ziurtatzea.
- Irakaskuntzak benetan garatzeko egon daitezkeen hutsuneak antzematea eta horiek zuzentzeko egindako ekintzak aztertzea.
- Ikasketa-planak ezartzean, hobetzeko gomendioak eta/edo iradokizunak egitea. Antzematea zein diren praktika onak unibertsitate-sistemaren barruan zabaltzeko.

I. ERANSKINA: ARAUTEGIA

- [1393/2007 ERREGE DEKRETUA, urriaren 29koa, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duena.](#)
- [11/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Gradu-, Master- eta Doktorego-tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.](#)
- [861/2010 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 2koa, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duena. Haren bidez, unibertsitate-mailako irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen da.](#)
- [4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 LOUa aldatzen duena.](#)
- [3/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.](#)
- [138/2006 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Uniqualek Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Agentziaren estatutuak onartzen dituena.](#)
- [Uniqualek Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Agentziaren zuzendariaren 2009ko azaroaren 5eko EBAZPENA. Horren bidez, Uniqualek Euskal Unibertsitate Sistemaren gradu-tituluen ikasketa-planei buruzko alde aurretiko txostena egiteko Uniqualek Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Agentziaren Administrazio Batzordeak onartutako protokoloa ezagutarazten da.](#)
- [Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Agentziako zuzendariaren 2009ko abenduaren 21eko EBAZPENA, Gradu-titulazioak Ebaluatzeko Batzordeetako kideak izendatzen dituena.](#)